

EUSKO IKASTOLA BATZA ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- 1986ko apirilaren 21ean (data) AS/A/00017/1986 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako EUSKO IKASTOLA BATZA ELKARTEAREN estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua- Hona Elkartea honen **HELBURUAK**:
- a) Elkarteko kideen interesak (banakakoak nahiz taldekakoak) defendatzea, Euskal Eskolaren berezko izaera eraso lezaketen gertaeren aurrean.
 - b) Euskara defendatu eta indartzeko, hezkuntza-kalitatea hobetzeko, eta ikasleen prestakuntza integrala erdiesteko baliagarriak diren orotariko jarduerak sustatzea.
 - c) Bestelako erakunde, instituzio nahiz partikularrekin lankidetzan jardutea, euskal eskola eta euskal kultura sustatu, garatu, kudeatu eta laguntzeko.
 - d) Euskarari eta Euskal Kulturari lotutako elkartea den heinean, modu berezian defendatuko ditu alderdi horiek, parte hartzen duen foru guztietan, eta, batez ere, Hezkuntza Administrazioaren aurreko esku-hartzeetan.

Elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- a) Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- b) Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- c) Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.



HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.- Hona elkartearen helbide nagusia: Bizkaiko Zornotzako San Miguel auzoa; Posta Kutxa: 48340.

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Hemen, lurralde-eremu honetan, garatuko ditu bere funtzioak elkarteak: Euskadiko Autonomia Erkidegoa.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkarteira iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluan esaten den bezala Ezohiko Batzar Orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide diren Ikastola guztietako ordezkariak osatzen dute, eta Elkarateak eztabaidarako eta erabakiak hartzeko duen organo gorena da.

Halaber, Ikastola bakoitzak hiru ordezkari ahalordetuko ditu, Batzar Orokorretan parte har dezaten; horietako bi titularrak izango dira, eta hirugarrena, ordezkaria.

Hala ere, Ikastola bakoitzak boto-emakile bakarria izango du Batzar Orokorrean, 14. artikuluan ezartzen den proportzionaltasun sistemari kalterik egin gabe.

Hona Batzar Orokorren eskumenak:

- a) Elkartearen jardura-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarateak desagitea.
- f) Presidente, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komerziari bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrek aginte-organori eskuordetu diezaioteko horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.



Euzko Jaurlaritza
Gobierno Vasco

REGISTRADO EN EL MINISTERIO DE JUSTICIA
REGISTRO DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGobierno
Registro de Asociaciones

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko eta ez-ohiko batzarrak egingo ditu. Era berean, Batzar Orokorra izaera unibertsal legez ospatu ahal izango da, bazkide guztiak bertan izanik, aho batez horrela erabakitzen dutenean. Kasu horretan, nahi beste gai eztabaidatu eta adostu ahal izango dira.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko batzarra, 7. artikuluko a), b) eta c) ataletan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean batzartuko da ezohiko batzarrean, bere ekimenez edota bazkideak diren Ikastolen % 25ek eskatzen dutenean.. Batzarra eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desagiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; batzarraren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez bost egun pasatu beharko dira batzarra lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar Orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Nagusiko burua Presidentea izango da. Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoen edo ordezkatutakoen gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Elkartea desagitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Elkartearen izaera juridikoa eraldatzeko, edota beste erakunde batzuekin -aldi baterako nahiz betirako- elkartzea.
- d) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- e) Bazkideen betiko banatzearen akordioa hartzea.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideri eman ahalko diote beraiek ordezkatzeko ahalmena Batzar Orokorretan. Ordezkaritza honi emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Elkartearen egolta dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkari bat beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

14. artikulua.- Botoen zenbaketa Batzar Orokorrean honela egingo da:
a) Batzarrean dagoen Ikastola bakoitzak boto bana izango du.
b) Honez gain, Batzarrean dagoen Ikastola bakoitzak, boto gehigarri bat izango du homologatutako edozein mailatan eskolatutako bostehun ikasle bakoitzeko.

Batzar bakoitzean bazkide bakoitzari dagokion boto kopurua zehaztu ahal izateko, Ikastola bakoitzak matrikulatutako ikasle kopuru egiaztatu beharko du, ikasturtea hasi eta hirurogei eguneko epean, beranduenez.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

15. artikulua.- Elkartearen Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa.

Zuzendaritza Batzordea bazkide den Ikastola bakoitzeko ordezkari batez eratuta dago eta hurrengo karguak izendatuko ditu:

- ☒ Presidente
- ☒ Idazkaria
- ☒ Diruzaina
 - Idazkaria- Diruzaina
 - Idazkariak, diruzaintza-eginkizuna bete dezake
- ☒ Presidenteordea
 - Batzordekideak Gehienez:
 - Bestelakoak: Adierazi

Zuzendaritza Batzordeko karguak ordezkatu behar direnean, ez egotea edota ezintasunaren kasuan, Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu.

Zuzendaritza Batzordeko batzarretara, Ikastoleko beste ordezkari batzuk joan daitezke, parte hartzeko, ahotzarekin baina botorik gabe.

16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek lau urterako izendatuko dira eta edozein kargutan berrautatuak izan daitezke jarraian hamabi urtera arte asko jota. Epe hori iristean, Zuzendaritza Batzordean izandako kargua nahitaez utzi behar dute, gutxienez lau urte. Epe hori igaro ondoren berriro hautatuak izan daitezke.

17. artikulua.- Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kideak izateko:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko bazkidea izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Dimititzen dutenean.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen direnean.

Baldin eta kargua uzteko arrazoia a) idatz-zatian agertzen dena bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.


Arrazoia b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

20. artikulua.-

Hona Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Elkaratearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorra-
jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Elkarateak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen
egoera-orkia Batzar Orokorra-aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorra- bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko
nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea
eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako
hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden
legeekin bat etorritik.
- g) Batzar Orokorra- berariazko erabakien bidez ematen dizkion
eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen
esklusibokoak.



21. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordearen batzarrak Presidenteak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Batzarreko burua Presidente izango da, ez balego, Presidenteordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du batzarrean, haien artean Presidente eta Presidenteordea izanik. Berdinketarik egonez gero, Presidentearen kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

PRESIDENTETZA

22. artikulua.- Elkarteko Presidenteak bere gain hartuko du Elkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako Presidenteak izango da.

23. artikulua.- Presidenteak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta Elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Balotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo batzarrean Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen esklusibokoak.

PRESIDENTEORDETZA

24. artikulua.- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta Presidenteak aldi batean bere kargua bete ezin badu, Presidenteak ordezkaturiko du. Era berean, Presidenteak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARITZA


25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, Elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, Elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkartearen liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.



DIRUZAINNTZA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.



BOKALAK


27. artikulua.- Bokalek beren karguei dagozkien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

28. artikulua.- Edozein Ikastola izan ahalko da Elkarteko bazkide, baldin eta dagozkion baldintzak bete, eta hurrengo artikuluan zehaztutako prozedurari jarraituz, Elkartearen helburuak garatzen laguntzeko konpromisoa hartzen badu, eta Estatutu hauetan jasotako arauak berariaz ontzat hartzen baditu.
29. artikulua.- Hauek dira Elkartean eskubide osoko bazkide moduan sartzeko baldintzak:
1. Ikastetxea izatea:
 - a) Eskumeneko erakundearen aldetik, Unibertsitatekoa ez den edozein mailatan onartua izatea.
 - b) Ezagutza transmititzeko bide nagusi gisa euskara erabiltzea, ikasleen hizkuntza ezaugarrien arabera, betiere.
 - c) Ikasleak Euskal Kulturaren eta balio tradizionalen baitan hezteko interes berezia edukitzea.
 - d) Ikastetxearen kudeaketa organo gorenetan gurasoak ordezkatzuta egotea.
 - e) Irabazi asmorik gabekoa izatea.
 2. Elkartean sartzeko eskaera egitea. Eskaera horrek barne hartu behar ditu: Ikastetxearen datuak, artikuluko honetan 1. atalean aipatutakoak egiaztatzen dituzten dokumentuak, eta Eusko Ikastola Batzaren Estatutuak berariaz onartzen direla adierazten duen ziurtagiria.

Pertsona juridikoen kasuan, gainera, ziurtagirian elkartearen ordezkariak duen pertsona fisikoaren izendapena adierazi beharko da.



3. Elkartearen Batzar Orokorrek onarpena ematea; aurretiaz, Zuzendaritza Batzordeak txosten bat egingo du, eskaerari erantzuna emanez. Erantzuna baiezkotzeko, eskatzailearen Lurralde Historiko berean dauden Elkartearen Ikastolen erabateko gehiengoa beharko da.

30. artikulua.- Bazkide mota bakarra, bazkide arrunta izango da. Hala ere, Zuzendaritza Batzordeak proposatu eta Batzar Orokorrek erabakita, Elkarteak ohorezko bazkideak izendatu ahal izango ditu; hau da, Elkartearen kide izan ez arren, gainerako bazkideen iritziz izendapen hori merezi duten pertsona edo erakundeak.


BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

31. artikulua.- Bazkide guztiek eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte; Elkartearen ordezkariak edota zuzendaritza karguren bat betetzeko berez dakarren bereizketa baino ez da egongo haien artean, edota bazkide bakoitzari Batzar Orokorrean dagokion boto-kopurua, azken hori bazkide bakoitzak duen ikasle-kopuruaren arabera zehazten baita.

32. artikulua.- Estatutu hauetako 34. artikuluko bazkideei ezartzen dizkien betebeharrak kalterik egin gabe, eta Elkartearen funtsezko printzipio bati jarraituz, bazkide diren Ikastola guztiek erabateko autonomia eta askatasuna izango dute haien kudeaketari dagokionez. Beraz:

- a) Elkartearen Ordezkaritza organoen jarduerak publiko guztiek erabat errespetatuko dute Elkartearen bazkide diren Ikastola bakoitzaren barne autonomia.
- b) Halaber, Elkarteak hartutako erabakiren batek bazkidea den Ikastola baten barne funtzionamendua eragingo balu, honek ez du erabaki hori betetzeko beharrik izango.

33. artikulua.- Bazkide guztiek eskubide hauek dituzte:
- a) Elkartearen buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko berrogei eguneko epean.
 - b) Elkartearen gobernu- eta ordezkari-organoen osakeria, elkartearen kontu-egoerari eta elkartearen jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
 - c) Elkartearen beste bazkideen nortasuna, diru-sarrerak eta gastuen egoera, eta Elkartearen ekintzen garapenerako berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.

- 
- d) Batzar Orokorretarako deiak jasotzea, Batzar Orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
 - e) Elkartearen Estatutu hauen arabera, **Elkarteko** zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea
 - f) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
 - g) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
 - h) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar.
 - i) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
 - j) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

34. artikulua-

Hona bazkideen betebeharrak:

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza-organoek ballotasunez hartutako erabakiei ontzat hartu eta erabaki horiek betetzea.
- e) Elkartearen printzipio eta helburuekin bat datorren jokabidea izatea, Estatutuetan eta Barne Araudian jasotakoa une oro onartuz eta betez, eta ordezkaritza naiz zuzendaritza organoek agintzen duten eran.
- f) Bazkide edo zuzendaritzako kidearen izaera, bai Elkartek lortu nahi dituen helburu desberdinetarako, bai horren aurkako jarduerarik egiteko ez erabiltzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA



35. artikulua.- Bazkide izaera arrazoi hauengatik galduko da:
- a) Borondatezko baja ematen denean, idaztiz jakinaraziz **Elkarteko** Presidentetzari.
 - b) Bazkidea den Ikastetxea itxi, iraungi, ordainketa-etendura **edo** porrota.
 - c) Estatutu hauetako 29.artikuluko 1. epigrafean adierazitako ezaugarriren bat galtzean.
 - d) Honelako egoeraren bat gertatzen bada: Estatutu hauetatik ondorioztatutako betebeharrak modu larritz ez betetzea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera gertatzea Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliodunei dagokienez.

ZIGOR-ARAUAK

36. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta Elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeke ikerketa egin dadila erabaki dezake Presidenteak. Ikerketaren instruktorea Idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, Idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instruktorea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.

37. artikulua.- Bazkideren batek Elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, Presidenteak Idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, Presidenteak jarduerak artxibatzeke agintzea edo Elkartetik kanporatzeko zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.



GOBIERNO VASCO

GOVERNANTZA PUBLIKO

GOBERNU SAILA

Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA

Y AUTOGOBIERNO

Registro de Asociaciones

38. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espedientea hasten bada, Idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo batzarrerako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instruktoarea izan den Idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo Ezohiko Batzar Orokorrean errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzarrik egiten ez bada, batzar bat egin beharko da horretarako bakarrik. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har deza

39. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

40. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SOZIEATE ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK



41. artikulua.- Elkartea ondare sorrera barik eratzen da.
42. artikulua.- Elkartek, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- a) Ondare-ekarpenak.
 - b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
 - c) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
 - d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen zilegizko jardueretatik datozen diru-sarrerak.

Elkartearen ekitaldia eta ekitaldi ekonomikoa urte betekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) Elkartek lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

43. artikulua.- Elkartek orotariko eskubide eta ondasunak eskuratu, eduki eta eskualdatu ahalko ditu, helburu sozialekin bat badatoz eta irabazi asmorik gabeak badira, betiere.
44. artikulua.- Elkartearen garapen eta egoera ekonomikoa bazkideen ezagutza eta kontrolaren menpe egongo da une oro, eta, betiere, indarreko legedian xedatutakoaren arabera.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

48. artikulua.- Elkartea honelako kasuetan desegingo da:
1. Bazkideek hala nahi dutelako (gutxienez bi heren). Nahi hori horretarako bildutako ezohiko Batzar Orokorrean azaldu beharko da Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
 2. Beste elkarre batek xurgatu duelako edo beste elkarre batzuekin bat egin duelako.
 3. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
 4. Epai irmo batek Elkartea desegitea agintzen duelako.
 5. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.
49. artikulua.- Elkartea deseginez gero, horixe erabakitzen duen Batzar Orokor ez-ohikoak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, eta hark hartuko ditu bere gain dauden funtsak.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarre-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarre-ondarea, geratzen bada behintzat, legez dagokionari itzuliko zaio, edozein kasutan, hezkuntza eta kultura arloko ekimenen bati eman beharko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak Barne Araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetao aginduak aldatuko.

BOSTGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

45. artikulua.- Estatutuak aldatzea bereziki horretarako deitutako bazkideen ezohiko Batzar Orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

46. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, Presidenteak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo batzarreko gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Onartua izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo Batzorde Orokor Ezohikoaren gai-zerrendan sartzea erabakiko da.

47. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

Estatutu hauek ikus-oneski dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Errolda Nagusiaren Erregiamendua onartzen duen uzatallaren 29ko 145/2008 Dekretuan eta horrekin bat datozen gainontzeko arauetan zehaztutako ondorioetarako.

2018 MAR. 15

Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.

ELKARTEEN ERREGISTRO/REGISTRO DE ASOCIACIONES



GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE GOBERNANTZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Registro de Asociaciones

AS/A/ 00017/1986